



Euskararen alde herria korrika.- Eguraldi goibelak ez zuen festa eten. 19. Korrikak beste behin gurean jendetza bildu zuen euskararen alde. Goizean goiz dianak esnatu zituen herritarrak. Xumela eta Alboka abesbatzako kideek kantu jira polita egin zuten Okendon beroketa saio jendetsuarekin hasi aurretik. Atzerapenarekin, lekukoa AEK Muntteri euskaltegiko ikasleek hartu zuten Errekalden eta eurek ekarri zuten Lasarte-Oriara. Eskutik eskura ibili zuten Korrikaren lekukoa herriko eragile desberdinek tartean Ttakunek, herriko eskoletako guraso eta ikasleek, kirol taldeek, elkarte gastronomikoetako ordezkariak, Udaletxeko alkate eta alderdi guztietako zinegotziek ere osatu zuten euren kilometroa. Kukukako clownek eta Jalguneko lagunek jarri zioten kolorea Korrikari. Ordu bete gure artean egin ondoren, Korrika Usurbil aldera joan zen, zubietarrek jaso zuten lekukoa Hipodromoko zubian. Hala ere, bazkari herrikoia, kantuak eta dantzak izan ziren arratsalde osoan zehar Okendon jaiari jarraipena emanez. Ostadarrek joko eta jolas ezberdinak ere egin zituen haur zein helduentzat.



2 ARTEA Herriko kaleak koloreztatu dituzte herritarrek

Margoketa eguna egin zen ostegunean eta herriko zenbait horma mural koloretsu eta politekin apaindu dira. Herriko artistek Udalarekin batera burututako ekimena izan zen. Zehazki, Dorre parkeko murala, haurrek koloreztatzeko prestatu zen eta ez zuten hutsik egin.



3 OMENALDIA Froilan Elespe gogoratu zuten 14. urteurrenean

Lasarte-Oriako PSE-EEko zinegotzia ETAK hil zuela 14 urte bete ziren larunbatean eta senide zein alderdiko ordezkari ezberdinek omenaldia egin zioten hilerrian. Elespe sariak banatu zizkieten ondoren Casa del Pueblon Isaias Carrascoren eta Juan Priederen familiei.

Lasarte-Oria eraldatzen
hari gara

ehbildu
lasarte-oria.ehbildu.eus

Martxoak
26
Osteguna
Jueves

19:00
TRINKETEAN

**HAUTESKUNDE
ZERRENDA**
AUKERAKETA ETA AURKEZPENA

1 ALKATEGAI ETA ZINEGOTZIGAIEN AUKERAKETA

2 SAGARDOTEGI ERALDATZAILEA
PINTXO POTE

3 MUSIKA

4 DANTZA
eta gehiago

MARGOKETA EGUNA

Herriko kaleak koloreztatzen

Margoketa eguna egin zen ostegunean



Dorre Parkean haurrek izan zuten aukera mural erraldoia koloreztatzeko.

Aurreko larunbatean eguraldi txarragatik bertan behera utzi behar izan zuen udalak Margoketa eguna eta osteguna jai eguna zela baliatuz, heldu zein haurrek ez zioten hitzorduari hutsik egin. Herriko pareta ezberdinetan aurrez aukeratutako zenbait mural margotu dira. Horietako bat, Dorre parkekoa, umek koloreztatzeko aukera izan zuten.

TXINTXARRI

Herriko pareta ezberdinetan herriko artistek euren muralak margotzeko aukera izan zuten ostegun goizean.

Horien artean, Dorre parkekoa. Herriko haurrek kolorezta zezaten prestatu zen eta bertan aritu ziren adin ezberdinetako gaztetxoak atsedetik hartu gabe, marritik ez ateratzeko kontu

guztiarekin, mural dotorea kolorez janzten. Margotzeko tailer eta jolasak ere antolatu ziren.

Margoketa egun honetarako aurkeztutako 22 zirriborroen artean, eragile ezberdinen elkarlanari esker, bost aukeratu ziren eta bost artistek, tartean lone Zabala lasarteoriatarrek, euren muralak margotzeko aukera izan zuten. Aipatu behar da, batzuek lana aurreratuta zutela,

eguraldi euritsuaren beldur, aurreko asteko eguraldi oneko egunetan. Horien artean saria zeinek eskuratuko duen erabaki eta jakitera emango da datozen egunetan. Bestalde, Antxota, herriko artisten elkarteko kideek kale Nagusian egin zuten euren lana.

Margoketa saioarekin pozik ziren artista zein parte hartzaileak. Ekimen gustagarria zela aipatu zuten bertan bildutako zenbait gurasok ere.

Ekimen hau 'Biziberritzen' proiektuaren barruan kokatzen da eta Udalaren helburua, esku-hartze artistikoen bidez udalerrira "alaia-go eta erakargarriago" bihurtzea da.

POLITIKA

'Euskal bidea' eraikitzeko pausoak



Xabier Isasi eta Pello Urizar izan ziren EHBilduk antolatutako mahai-inguru berezian.

Lasarte-Oriako EHBilduk '100 mila kafe' kanpainaren barruan Pello Urizar eta Xabier Isasi izan zituen gonbidatu asteartean, Villa Mirentxu egoitzan egin zen ekitaldian.

Euskal Herria eraikitzeko bide berria abian jarri nahi du EHBilduk eta herritarrei berri emateko '100 mila kafe' ekimena jarri du martxan.

Euskal Herriko txoko guztietara iritsi nahi dute eta lasarteoriatarrek asteartean mahai inguru berezi batean parte hartzeko aukera izan zuten.

Bidea eraikiz

Lasarte-Oriako EHBilduk gonbidatuta Pello Urizar eta Xabier Isasi legebiltzarkideak izan ziren bide berri honen nondik norakoak azaltzen.

Ixiar Arteaga irrati esatarriak gidatu zuen ekitaldian bide berri honen zergatia,

Eskozia edo Kataluniaren ereduak, Euskal Estatuak nazioartean izan behar duen lekua edo prozesu irekia izatea izan ziren jorratu ziren gaietako batzuk.

Urizar eta Isasik, besteak beste, bide honetan dinamika sozial bat martxan jarri eta herritarren atxikimendua eta partaidetza garrantzitsua dela azaldu zuten. Hau guztiei irekitako bidea dela eta horretarako oinarri sendoak jarri behar direla azpimarratu zuten.

Gai-jartzaileak egindako galderez gain, Villa Mirentxu egoitzan bildu ziren herritarrek ekarpenak eta gonbidatuei galderak egin ahal izan zizkieten solasaldian zehar.

Gainera, saio osoko hitz esanguratsuen aipatzeko proposamena ere egin zuten Arteagak eta amaieran jakitera eman zuten guztiek.

EHBilduk alkategaia eta zinegotzigaiak ostegunean plaza-irekian aukeratuko ditu

Lasarte-Oriako EHBilduk, martxoak 26, osteguna 19:00etan Trinketean hauteskunde zerrendaren aukeraketa eta aurkezpena egingo du.

Orain artekoa "intensoa izan da, lan asko egin da eta ibilbide emankor eta parte-hartzailea izan du".

Prozesuari hasiera emanez, plaza ireka egin zen taldekako lanak burutuz prozesua definitzeko. Legegintzaldiaren

balorazioa egiteko, herritarren artean inkestak banatu ziren, "ahalik eta balorazio parte-hartzaileena izateko asmoz". 540 inkesta jaso ziren eta bertako informazioarekin, alkate eta zinegotziek egindako balorazioarekin eta udalak duela 2 urte egindako inkestaren emaitzekin atera ziren ondorioak.

2030 urterako eta epe motzerako erronkak definitzeko

arlokako bilerak egin ziren, 100 pertsona ingururen parte hartzearekin. Hortik eta alkate eta zinegotziek burututako lanaren ondorioz, hainbat erronka definitu ziren. Ondoren, bigarren inkesta banatu zen herritarren artean, programarako arlokako lehentasunak definitzeko eta alkategai eta zinegotzigai izateko proposamenak jasotzeko. "Emaitza emankorra izan

da, 340 inkesta jaso dira. EHBilduren programako lehentasunak inkesta hauetatik jaso dira, baita alkategai eta zinegotzigaiak ere".

EHBildu, inkestetan alkategai eta zinegotzigai izateko proposatutako pertsonekin harremanetan jarri da, 89 proposamen zeuden, eta ostegunean herritarrek EHBilduk parte-hartze prozesuaren ondorioz osatutako zerrendari


baiezkoa edo ezezkoa emateko aukera izango dute.

Hauteskunde zerrendaren aukeraketa eta aurkezpenaz gain, "trinketea sagardotegi eraldatzaile bihurtuko dugu, pintxo poterako gune eta hainbat musika eta dantza ekitaldi izango dira".

Herriko EHBilduk, "osteguneko plaza irekian parte hartzeko gonbita luzatzen die bertaratu nahi duten guztiei".

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Jon Altuna,
Nerea Eizaguirre
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Maider Seguro, Jexux
Artebe, Gorka Alvarez, Pako
Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

OMENALDIA



Hilerrian lore eskaintza egin zuten familiako kideek PSE-EEko hainbat ordezkarien babesarekin.

Froilan Elespe zinegotzi sozialista gogoan

14 urte dira ETAK herriko PSE-EEko zinegotzia hil zuela

Duela 14 urte ETA-k Froilan Elespe Lasarte-Oriako PSE-EEko zinegotzia hil zuen. Larunbatean hilerrian lore eskaintza egin zen eta jarraian, herriko PSE-EEko kideek Elesperen familiarekin batera sustatutako Froilan Elespe saria eman zieten Juan Priede eta Isaias Carrascoren senideei. "Elesperen antzera euren herriaren alde lan egiteagatik", Orio eta Arrasateko PSE-EEko zinegotziak ziren.

TXINTXARRI

Froilan Elespe zinegotzi sozialista gogoan izan zuten larunbatean sozialistek bere heriotzaren 14. urteurrenean. Tomasi Pelaez alarguna eta Andoni eta Josu semeei babes ematera gerturatu ziren hilerrira PSE-EEko hainbat ordezkari. Tartean izan ziren, Jesus Zaballos eta herriko PSE-EEko zinegotziak, Iñaki Arriola, Miguel Buen, Rafaela Romero edota Jesus Egiuren.

Lore eskaintza egin ostean, Iñaki Arriolak Froilan Eleperentzat hitzak izan zituen, alor pertsonalean

gizon "langile eta apala" zela gogoratu nahi izan zuen besteak beste.

ETA gabeko lehenengo udal hauteskundeak izango direla ere aipatu zuen.

"Lasarte-Oriako herritarrek beti egin dute alderdi sozialistaren alde, duela lau urte ere alderdi bozkatuena izan zen gurea, hala ere, alkatetza beste batzuek hartu zuten eta Lasarte-Oriako herritarrek merezi ez duten udal gobernu bat izan dute azken lau urteetan. Herria eta herritarren alde ezer ez egin duen udal gobernu bat".

Jarraian, bere babes osoa adierazi zion Jesus Zaballos

eta berarekin PSE-EEko zerrenda osatu duten herritarrei "espero dut beti bezala, Lasarte-Oriako herritarrek bere babes eta bozka PSE-EEri ematea".

Elespe saria

Hilerriko omenaldiaren ostean, herriko sozialisten egoitzan hirugarren urtez Froilan Elespe sariak eman dituzte.

Jesus Zaballos, herriko PSE-EEren izenean eta Elesperen senideek, Isaias Carrasco eta Juan Priede ETAK hildako Arrasate eta Orioko zinegotzian familiari eman nahi izan zizkieten oroigarriak.

Carrasco familiaren izenean, Sandra alabak hartu zuen oroigarria Josu Elesperen eskutik eta esker oneko hitzak izan zituen Lasarte-Oriako PSE-EEko kideentzat.

Juan Priederen familiak ordea, ezin izan zuen parte hartu ekitaldi honetan eta Tomasi Pelaez, Froilan emazteak hartu zuen oroigarria hauen izenean.

IRAKURLE TXOKOA Emakumea eta bere kezak

Irakurle Txokoko lagunak asteartean Danele Sarriugarte idazlearekin solasean egon ziren giro ederrean.

Txokoko kideek idazle honen lehen liburua 'Erraiak' izan zuten irakurgai eta idazlearekin haien iritzia partekatu zuten.

Liburuak bikote baten harremanaren haustura eta emakumearen ikuspuntutik, honek sortzen dituen kezak, zalantzak, etb. aurkezten ditu.

Hori dela eta, Irakurle Txokoko lagunak besteak beste, emakumearen gaur egungo egoera, amatasuna, harremanak, matxismoa eta feminismoa jorratu zituzten Uxue Alberdi eta Danele Sarriugarteren laguntzaz.



UDALEKUAK

Begirale izan nahi?

Udararako hiru hilabete geratzen zaizkigu. Gazte gehienek oporretan ederki igarotzea dute buruan, baina batzuk lan egiteko prest daude. Ttakun Kultur elkarteak herriko gazteei aukera bat eskaini nahi die, begirale izatea.

Uztaila edo abuztuan zehar Udako Txokoetan herriko gaztetxoekin primeran pasa edo Mendigorria eta Donemiliagan udaleku itxietan ibilaldiak egin eta milaka abentura bizitzeko prest dauden gazteek izena emateko aukera dute dagoeneko.

Begirale ugari behar dira batez ere Udako Txokoetarako. Aisia saileko arduradunek azpimarratu dutenez, bi baldintza daude 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukuna izatea.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Ttakun Kultur elkartera hurbildu edo aisia@ttakun.com helbidera mezu bat bidali besterik ez du. Begirale poltsan izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.



Kimuak landatuz, ikastetxeetako haurrek ederki igaro zuten goiza.

IKASTETXEAK

Goiegiko magalean kimu landaketa

Zuhaitzen Egunaren XXIV. Zedizioa ospatuko da aurtentzen Lasarte-Orian.

Asteartean Garaikoetxea-Landaberi eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako ikasleen txanda izan da.

Martxoaren 25ean, asteazkena, Udal Euskaltegiak, AEK Euskaltegiak, Sexuen arteko Bizikidetzarako Emakumearen Zentroak, Erretiratuen Elkarteak eta Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroak (EPA) hartuko dute parte, baita zuhaitzak landatzen gozatu nahi duten herritar guztiek ere.

Kontzientziatu

Urteroko jardunaldi hauen

bidez, Udaleko Ingurumen Departamentuak zuhaitzen garrantziak kontzientziatu nahi du, eta, bat egin martxoaren 21eko Basotzearen Munduko Egunarekin, "belaraldi berriak hezi nahi ditugu gure basoak zaintzearen beharraz kontzientzia har dezaten".

Iaz bezala, landaketak Goiegiko mendi-hegaleko lursailetan egingo dira. Aurten, haritz, lizar, pago eta gorosti-doen 150 kimu landatuko dira guztira.

Datorren astean egingo den landaketan parte hartzeko, Udalera dei daiteke 943 37 61 89 telefono-zenbakia-aren bidez, astelehenetik asteartera, 10:30etik 13:30era.



Hirugarren urtez Froilan Elespe sariak banatu zituzten, aurtengoan Isaias Carrasco eta Juan Priederen senideentzat izan ziren.



AEK-Muntteriko ikasleak izan ziren Errekalden lekukoa hartzen lehenak.



Kukuka antzerki eta dantza eskolako ikasleek kolorea jarri zioten euskararen aldeko lasterketari.



Ernai eta Sorgin Jaikoek ekarri zuten Korrika Lasarte-Oriara.



Landaberri guraso elkartekoen atzetik jendetza.



Elkarte gastronomikoetako ordezkariak eskutik eskura pasa zuten lekukoa.

Lasarte-Oria, euskahaldun!

Herritar asko euskararen alde Korrika

Herritar taldea osatu zen Errekalden Korrika noiz iritsiko zain eta 20 minutuko atzerapenarekin hartu zuten Muntteri AEKko hiru ikasleek lekukoa. Jarraian, Sorgin Jaia eta Ernaiko kideek jaso eta esan daiteke, euren eskutik sartu zela Korrika Lasarte-Oriara.

Kukukako clown pailazoaren txanda izan zen ondoren eta antzerki eta dantza eskolako ikasle eta irakasle askok egin zuten bat euskararen aldeko lasterketarekin puntu honetan.

Pailazo berezi hauek gidatuta, lekukoa Landaberriko guraso elkarteko kideen eskutara eraman zuten. Tajamarreko errotondatik behera, Argia eta Antzako langileak nahastu eta bertan hartu zuten lekukoa. Metro batzuk egin ostean, Landaberrikoek jaso zuten berriz jarraian elkarte gastronomikoetako ordezkari gazteei pasatzeko, Arrieskalleta, Buruntzazpi, Intza, Lasar-

tearra eta Xirimiri. Ttakuneko kudeatzailea, Jokin Labayen zain zuten Kultur elkarteko langile eta ordezkariekin. Hauek Pinutegiko aldapari gogotsu ekin zioten eta Erketzeko dantzariak maldan gora eraman zuten Korrika Ostadrereko tenis eskolako ordezkariari lekukoa emateko. Zabaletako bizilagunen ordezkari bezala, Beltran familiako hiru belaunaldi ikusi ahal izan genituen korrika ondoren.

Buenos Aireseko aldapan behera, herriko LABeko ordezkariak eraman zuten euskararen aldeko lekukoa TSSTko langilei emateko. Udaletxe pareraino eraman zuten hauek eta Pablo Barrio alkateak gidatuta, udala osatzen duten alderdi guztietako ordezkariak ibilbidea egin zuten Zumaburutik. Jalguneko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen txanda izan zen ondoren, pausoka-pausoka eraman zuten hauek txalo artean Ater-

peako kideen eskuetara lekukoa. Kamiseta horiak soinean, herriko merkataria eta ostalarien elkartekok Uribe familiari pasa zioten. Santos Uribek Maialen ilobarekin osatu zuen semearen oroimenezko kilometro hunkigarria.

EAJkoek jarraitu zuten ibilbidea eta eskutik-eskura ibili zuten hauek Korrikaren lekukoa. Herriko EHBilduren kilometroan, Ina Orotegi eta Kepa Rezabal preso ohiak buruan.

Azkenekoz herriko ikastetxeetako ordezkariak hartu zuten gurean lekukoa eta beraiekin, atera zen Korrika Lasarte-Oriatik. Hipodromoko zubian zain ziren Usurbilgo Lanbide eskolako ordezkariak.

Korrikak ordu betean osatu zuen 9 kilometroko ibilbidea, herritar askorentzat "bixiegi" aukeran. Herritar ugarik parte hartu zuen 19. edizio honetan eta beste behin, une hunkigarriak bizi ahal izan ziren jendez betetako kaleetan.



Antza eta Argiako langileak lekukoa hartzen aurreratu ziren. Ttakuneko kideek aldapan gora eraman zuten lekukoa.





Erketz dantza taldekoak umoretsu Pinutegi kaletik gora.



Ostadarren ordezkariak tenis eskolako lagunak izan ziren aurtengoan, kirol elkarteko bandera ederki astindu zuten.



Zabaletako bizilagun elkartearen ordezkariak Beltran familiako hiru belaunaldi.



Herriko LABeko kideak Buenos Airesetik behera.



TSSTko langileen ibilbide zatian txikienak protagonistak.



Udalan dauden alderdi guezietako ordezkariak izan ziren euskararen alde korrika, behean Aterpeako kideak.



Jalguneko lagunak izan ziren Pirritx, Porrotx eta Marimotots.



Santos Uribe semaren oroimenez eskuratutako ibilbide zatia egin zuen bilobarekin.

EAJko ordezkariak Kale Nagusira ekarri zuten berriz Korrika. EHBilduren kilometroan, Ina Orotegi eta Txurdi preso ohiak gidari.

TRIATLOIA.-

Saiatuz Triatloi Taldea aurkeztu dute

Hogei bat herritarrez osatutako klubak Euskal Herriko triatloi zirkuituan parte-hartuko du

Hiru kirol modalitate bakarrean biltzen ditu triatloiak. Bakoitzak bere aldetik eskatzen duen lanarekin nahikoa ez, eta igeriketa, bizikleta eta korrika egiten dute proba berean kirolari ausart hauek, distantzia ezberdinetan. Lasarte-Orian ere badira culloteak, bainujantziak eta zapatilak armairu edo kaxoi berean nahastuta gordetzen dituztenak. Saiatuz Triatloi Taldeko kideak dira, triatletak. Egun, hogei bat lagun dira denera eta pixkanaka gora dator taldea, kirola bera bezalaxe.

JON ALTUNA EGITEGI

Herriko lehen triatloi taldea 2006. urtean sortu zen Lasarte-Oriako Igeriketa Elkartearen eskutik. Ordutik urte oparoak eta baxuak izan zituzten, kluba desagertu egin zen arte, baina gaur egun 20 laguneko koadrila osatzea lortu dute. Saiatuz Triatloi Taldearen izenpean batu dira, MKL txirrinda dendaren babesarekin. "Herrian talde bat izan baze-goela bagenekien, baina gero jendeak triatloia bere kaxa egiten zuela ikustean erabaki genuen taldea indartzea", aipatu dute Saiatuzeko kideek.

Imanol Arteaga, Eñaut Fdez De Lezea, Ramon Altuna, Gema Oreja, Noemi Montero, Amagoia Fdez De

Lezea, Javi Lopez, Andoni Salsamendi, Kote, Ramon Altuna, Zigor Gallardo, Iñigo Valdivia, Leo Juarez, Enaitz Ibarburu, Pablo Uceru, Miguel Angel Fernández, Peio Fadrique, Juan Mari Ansa, Jabi Alonso eta Asier Gorostegi dira taldeko kideak. Ez dira nazioarte mailako Mario Mola, Gwen Jorgensen, Ainhoa Murua edo Brownlee anaien mailara ailegatzen, baina ilusioari dagokionez hortxe-hortxe ibiliko dira.

Egutegia

Maiatza aldera hasiko dira probak, eta nahi duenak denboraldia irailera arte luzatzeko aukera izango du. Tartean Euskal Herriko Zirkuituko lasterketak lehiatuko dituzte gehienbat, baten batek Iruñeako Iron Man Erdia, Bartzee-



Saiatuz Triatloi Taldeko kide batzuen talde-argazkia, taldearen denboraldiaren aurkezpenean.

lonako 70.3 Triatloia, Onditx proba, Bilboko Iron Man Erdia... ere egingo dituen arren. Eta nola ez, Zarauzko Triatloia. Taldeko sei kide egingo dute inguruko probarik entzutetsuena.

Gainera, kros herrikoiak, igeriketa trabesiak eta proba zikloturistikak ere uztartuko dituzte herritarrek triatloi denboraldiak iraun bitartean.

Taldea giroa

"Whatsapp talde bat badaukagu sortua komunikatzeko, astean zehar bakoitzak

ahal duen neurrian egiten ditu entrenamenduak, baina behin asteburua iritsita gehienetan bizikletaz elkarrekin ibiltzeko geratzen gara", diote Saiatuzeko kideek.

Entrenatzeko eta ondo pasatzeko dagoen kiroltik "entretengarriena" dela esan dute: "Asko jota, astean hiru aldiz entrenatzen duzu igeri, hiru aldiz korrika eta hiru aldiz bizikletan. Horrekin jada bederatzi entrenamendu sartzen ari zara zazpi eguntan. Asko ematen du, baina hiru kirol ezberdin direnez

gorputza eta batez ere burua ez dira hainbeste nekatzen".

Buruhauste gehien ematen diena bakoitzaren lana triatloiarekin bateratzea da. "Guztia bezala, errutina batzuk hartu eta antolatzea da sekretua". Dena den, ondo pasatzeko tarterik ere bada kirol honen inguruan, "afariak egiteko geratzen gara, pote batzuk hartzeko... Giro ona daukagu". Herrian triatloia egiteko interesa duen norbait bada, 667 680 490 zenbakira (Ramon) deitzeko eskatu dute Saiatuzeko kideek.

ATLETISMOA.-

Eneritz Busto Espainiako txapelkun jubenil mailan, 60m hesietan

Iaz Itoitz Rodriguezek 400 metroetan egin bezala, urrezko domina jantzi zuen Eneritz Busto LOKEko atletak joan den astean Donostiako Antonio Elorza Belodromoan ospatu zen pista estaliko Espainiako jubenil txapelketan. Bigarren urtez jarraian, LOKE bezalako klub txiki batek urrezko domina Lasarte-Oriara ekartzea lortu du.

Bustok 60 metro hesien finalean 8,76ko marka egin bazuen ere, finalurrekoan 8,74ko marka hobea osatu zuen, finalerako txartela nagusitasunez eskuratuz.

Behin finalean, irteera on bat eginez eta hesiak hilabeteotan lantzen aritutako teknika eta abiadura handian pasata, Espainiako txapela jantzi zuen.

"Oso neska ausarta da, konpetidore ona, lehiaketaren



Eneritz Busto herritarra, bizkarrean hesi bat duela.

TXEMA VALLÉS

momentuan ez da beldurtzen eta barruan duen guztia ematen du", adierazi du Oscar Goikoetxea prestatzaileak: "Oso pozik nago Eneritzek lortu duenarekin. Merezi du. Oro har, gustura nago taldeak indoor denboraldian eman duen mailarekin eta emaitzak onak izan dira".

Orain LOKEk entrenamendu erritmoa jaitsi du hilabete eta erdi barru hasiko den aire libreko denboraldia prestatzeko asmoz. Hemendik aurrera, Super Amara BAT taldearekin lehiatuko dituzten Espainiako Ligak eta Espainiako Txapelketak izango dira LOKEko atleten erronka nagusiak.

LABURRAK.-

Buruntzaldea IKTko igerilarietako domina asko lortu dituzte Gipuzkoako Neguko txapelketan

Pasa den asteburuan taldeko infantil, junior eta absolutuak Tolosan izan ziren Gipuzkoako Neguko Txapelketan parte hartzen. Emaitza onak lortu zituzten eta Borja Apeztegia entrenatzaileak "bikain" aritu zirela jakinarazi du. Sailkapen orokorrean neskak hirugarren izan ziren eta mutilak eta taldea orotara, laugarren.

Neguko denboraldiari amaiera emateko azken txanpa honetan Mikel Esnalek eta Iñigo Ibarburuk azken zita garrantzitsua dute oraindik, martxoaren 28tik aurrera Malagan ospatuko den Espainiako Open Txapelketa. Hortik aurrera, ondo merezitako atsedenaldirik txiki bat izango dute denek.

Peru Murgiondo Euskadiko selekzioarekin izango da Cadizen, Espainiako Txapelketan

Peru Murgiondo 12 urteko Lasarteoriatarra Euskadiko infantil selekzioak deitu du. Easo eta Axular Lizoean jokatzen du saskibaloira herritar gazteak. Euskadiko mini selekzioetik deitu dute Aste Santuan Cadizen egingo den Espainiako txapelketan parte hartzeko. Azken hilabeteetan entrenamendu asko egin dituzte eta burubelari prestatu dute txapelketa.



Agenda

Larunbata, Manuel Lekuona, 19:30ean



Ereintza taldearen 'Relaxing' lana

Erreterriako Ereintza antzerki taldearen "Relaxing" antzezlanaren ikusi ahal izango da larunbatean Antzerki Amauterrari eskainitako programazioaren baitan. Hamaika hilabeteko infornuaren ondorengo hilabeteko paradisuak, horietan dira oporrak. Urte osoko ametsak ordea ez dira beti nahi bezala gauzatzen eta batzuetan bada gure ilusioak zapuzten dituen zer edo nor. Hori izango da lanaren abiapuntua eta hamaika pertsonai xeblek eragingo dute ikuslearen algarara. Euskaraz izango da. Sarrera 5 euro.

SIGLO 20

Larunbata

Alex Nomaklimato-rekin 'I'm sorry party'. Sarrera doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 22:00etan

Eduki digital berrien artean, "Queen-rock Montreal 1981" kontzertuaren grabazioa ikusi ahal izango da. Bertsi digitalak Queen-en aktuaziorik onenetakoa bezala ezagutzen da. Montrealen zuzenean grabatua 1981. urtean, lehen aldiz izan zen taldeak zineko formatuan kontzertu bat grabatu zuena. Irudi eta soinua tratamendu digital aparta, hitzak gazteleraz azpititulatuak. Sarrera 9 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Martxoan zehar

Rudy margolariaren "Itzalaren koloreak" bilduma dago ikusgai.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 22:00etan

"Magia a la luz de la luna" filma Okendo zinema taldearen zine forum saioan. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

"Bob Esponja 3D" filma haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 19:30ean

"Magia a la luz de la luna" filma ikusi

ahal izango da helduentzako zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Ekozinemaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena, 19:00etan

"Damé más gas", "Argentina libre de fracking", "Fractura, la maldición de los recursos" eta "Fracking Patagonia" laburrak ikusi ahal izango dira. Doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea, 19:00etan

"LEGO Everthing is not awesome", "Petrolioaren lioa", "Voces en Tran-

sición" eta "El caso Sarayaku" film laburren emanaldia. Doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena, 19:00etan

"Chiacte vive", "Decrecimiento en un minuto", "Somos viento" eta "Pueblos acorralados por el gas" film laburrak ikusi ahal izango dira. Doan.

Musika

SIGLO 20

Ostirala

'Yosolopintxotemones' DJ saioa izango da. Doan.

Usurbil

Zinea

SUTEGI

Osteguna, 19:00etan

Laburbira, zortzi film laburren emanaldia: Hubert le Blonden azken hegaldia (Koldo Almandoz), Ein Land (Igone Arreitunandia), Aitona Mantangorria (Kepa Errasti), Zela Trovke (Asier Altuna), Arconada (Asier Urbieta), Don Miguel (Kote Camacho), Zaunk (Ixone Aroma, Aritz Lasarguren eta Asier Vera) eta Zarautzen erosi zuen (Aitor Arregi). Noauak antolatuta, sarrera doan.

-Herritarren txokoa-

Eskutitza

EAJ zabor kontutan Lasarten ere biluzik dela agerian uzten du Bizkaiak

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da martxoaren 24an, asteartean, arratsaldeko 17:00etan.

Erakusketak jartzeko espazioa

Jalgi Kafe Antzokian erakusketa jartzeko interesa izan dezakeen edozeinek kultura@ttakun.com edo 943 37 14 48 telefonora dei dezake espazioa eskatu, edozein zalantza edo informazio gehiagorako. Normalean hilabeteko iraupena duten erakusketak izanten dira Jalgin jartzen direnak. Margoak, argazkiak, ilustrazioak... jarri daitezke. Ez da zertan Lasarte-Oriakoa izan behar espazio hau erabiltzeko.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan, martxoaren 30ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Zuen oharrak jarri, keak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Bilboko Artigas zabortegei ondoko baso eta erreka plastikoz beteta daudela salatu du Eguzki URaren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Departamentuaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean. Hondakinak ez ziren birziklatzera eraman, eraman behar ziren bezala, eta, gero, huts nabarmen baten ondorioz, inguruetan sakabanatu ziren. Gauzak horrela, zabortegei ondoko mendiak zabortegeiaren beraren zati bat dirudi (Berria). Hura gertatu zenetik hilabete baino gehiago pasatu da, baina erakundeek ez dute parajea lehengoratzeko neurririk hartu, eta, gaia aipatu zaienean erakutsi duten jarrera ikusita, ez dirudi hartzeko asmorik dutenik ere.

Honezkeror irakurleak esango du: oso ondo, baina honek guztiak ba al du Lasarte-Oriarekin zerikusirik? Bai, jaun-andrea, eta irakurtzen jarraitzeko adina pazientzia baduzu, berehala atzemango duzu...

Bizkaiko erakundeetan EAJ da nagusi. Gipuzkoan zabortegeiaren zerikusia duen edozer dela eta, sekulako zalaparta sortzen duen EAJ berbera. Izan ere, EAJk Gipuzkoan protesta egiten du zabortegeiaren ixten ez direlako, baina baita ixten direnean ere (horra hor Zarauzko Urteta). A zer eskandalua plastikoen Artigasen ordez Sasietan gertatu izan balitz! (Edo iazko apirilean Berriatuen detektatutako Q sukarra Lapaxen agertu izan balitz!). EAJ hondakinak erraustean aldekoa da, eta dagoeneko agindu du Zubietako proiektua martxan jarriko duela, hurrengo hauteskundeetan Gipuzkoako gobernua berreskuratzeko. Alabaina, proiektu txixixeagoa izango da, alde batetik, lehengoa neurritz gainera zelako (kostata, baina azkenean publikoki ere hori onartu behar izan dute) eta, bestetik, Gipuzkoan azken urteotan birziklatzearen alde egindako lanak, kontraesanak kontraesan,

inork gutxi espero eta, jakina, errauskailuzaleek desio baino askoz emaitza hobekak lortu dituelako.

Errauskailuak ez du fama onik, ordea, ezta atez atekoaren kontra muturreko jarrerak erakutsi dituzten hainbat herritarren artean ere. Batez ere errauskailutik gertu egongo liritekeen herrietan, esaterako, Lasarte-Oria. Horregatik EAJ saiatzen da bere apustua leuntzen errauskailua zabortegeiaren "alternatiba" dela sinestaz. Otsaileko plenoan, garbi esan zuen Estibxu Alkorta: "Nahiago dugu erraustegia zabortegei baino" (Txintxarri). Izan ere, zabortegeiaren diru atzeko patioan inork nahi ez duen beste azpiegitura horietako bat. Bada, EAJk sinestaz nahi duen ideia horren aurrean, behar bezainbestean errepikatuko dugu errauskailuak ez duela inolaz ere zabortegeiaren beharra baztertzeko. Izan ere, errauskailuak sortzen dituen errauts eta zepak botatzeko zabortegeiaren behar dira. Are gehiago, errauts eta zepa horiek arriskutsuak direnez, ohiko zabortegeiaren ordez, zabortegei bereziak behar dira. Baina irakurleak ez du zertan itsu-itsu sinetsi esaten duguna. Horrela dela egiaztatzen, Bizkaiko egoerari begiratu bat bota baino ez du egin behar. Izan ere, Bizkaiko hondakin politikak Zabalgarbiko errauskailua du oinarri duela hamar urtetik. Eta Bizkaian zabortegeiaren desagerterik al dira? Inola ere ez. Zabalik jarraitzen dute, eta zabalik jarraituko dute urte askoan, gainera. Horren frogarik argiena da Bizkaiko Foru Aldundiak aurtun Artigaseko zabortegei handitzeko lanak lehiaketara ateratzea. Lan hauek zabortegeiaren beste 26,5 urtez zabalik mantentzea ahalbidetuko dute. Hau da, 2041. urtera arte! (Deia).

EAJk dio: "Zabortegeiaren inon ez". Baina "inon ez" horrek herrialde guztietan balio al du? Ez, Gipuzkoan bakarrik, "kasualitatez", gehien birziklatzen duen

herrialdean bakarrik, alegia. Bizkaian, berriz, zabortegeiaren mantentzen eta handitzen ditu, ikusi dugun bezala, eta, gainera, ez dirudi haien kudeaketan aplikatzen duenik Gipuzkoan aldarrikatzen duen zorroztasuna. Horren lekuko da Artigasen salatu berri dugun plastikoa botatzea, baina hori ere peccata minuta da beste zenbait kasuarekin alderatuta. Horra hor Zallako Las Lagunaseko zabortegeia. Udalak, irregulartasun ugari atzeman ondoren, itxeko eskatu du. Portzertu, irregulartasun horietako bat Zabalgarbiko zepak bertan bota izana da (Zallako Udala).

Bai, Bizkaiko ispiluari begiratu baino ez zaio egin behar konturatzeko EAJ biluzik dagoela Gipuzkoan zabortegeiaren kontra sutsu baino sutsuago ari denean. Zabortegeiaren kontra sutsu baino sutsuago, betiere baldin eta Gipuzkoan badaude, eta, oroz gain, errauskailuaren alde ERRE KE ERRE. Kontua da ez birziklatzea, edo ahalik eta gutxien birziklatzea, edo ahalik eta gutxien birziklatzea eta, gainera, ahalik eta beranduen hastea. Eta horren adibide garbia ere bada Lasarte-Oria. Izan ere, PSOEek eta EAJk legegintzaldi hasieratik 5. edukiontzia barrikada gisa erabili dute Udalak birziklatze bidean pauso sendoagorik ez emateko. Baina legegintzaldiaren bukatzean da eta, agindu zutenaren kontra, 5. edukiontzia ere ez dute herrian ezarri, eta ez dirudi maiatza bitartean emandako hitza beteko dutenik. Beharbada auzoren batean, egingo balute itxura egiteko, baina benetan egin gabe.

Honaino iristeko pazientzia izan duzun irakurle hori, ikusten duzunez, testu hasieran aipatu dugun Artigaseko gertaerak Lasarte-Oriarekin ere badu zerikusirik, bai.

EGUZKI

Jai giroa nagusi



Beroketa saio jendetsua egin zen Okendon Enara Yeregik gaztetxo talde baten laguntzarekin gidatuta.




Txistulariek diana jo zuten eta Kantu Jiran parte hartu, Dinbi Banda Korrika girotzen.



Bazkari herrikoa egin zen Korrikaren ostean Okendon jarritako karpan.



Jolasak eta erromeriarekin amaitutzat eman zen jai egun berezia.

 **Gipuzkoa**
BERRIA

EMAN
AURPEGIA
 arrazakeriaren kontra

ELI PINEDO | Bera Berako eskubaloj jokalaria
 #emanaurpegia #arrazakeriarenkontra